

22/01 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko urtarrilaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretua, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko EAEko ikastetxe publikoetan nahiz itun-

Peko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan, baita Oinarrizko Lanbide Heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere), aldatzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.

I. AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen du oinarrizko zer arau aplikatu behar den ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan ikasleak onartzeko. Hezkuntza-administrazioen egitekoa da ikasleak onartzeko prozedura eta irizpideak arautzea, betiere errespetatuta aipatutako lege organikoan ezarritako lehen-tasun-irizpideak.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, 13. artikuluan, ikastetxeetan ikasteko eskubidea bermatzen du, aurrez ezarritako plangintzaren baitan. Legeak adierazten du, halaber, arau bidez ezarritako delako ikasleak onartzeko bidea ikastetxeetan plaza nahikorik ez dagoenean, inongo diskriminaziorik egin gabe ez araudian ez eta ikasleak onartzeko jardunbidean ere.

Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretua, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), baita oinarrizko lanbide heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldaketak egin ditu ikastetxe publikoetan eta itunpeko-

tan ikasleak onartzeko irizpideetan eta lehentasunean (84. artikulua, 2. eta 7. paragrafoak), bai eta onarpen-arauen aplikazioan ere (86. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak) eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta jarraitzeko berdintasun eraginkorrari buruzkoa (71., 86. eta 87. artikulua). Beharrezkoa da hori araudian jasotzea, eta hurrengo atalean zehaztuko dugu.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren artikulua batzuk aldatzen ditu. Hona hemen artikulua horiek:

1. 1. artikulua: "Irakaskuntza" eta "irakaskuntza" terminoak 1. artikuluan zerrendatutako guztiei dagozkie.
2. 2.5 artikulua: ikasle goiztiarren kasuan, maila baxuagoan matrikulatzeko malgutasuna.
3. 2.6 artikulua kendu egiten da ikastetxeek derrigorrezko eskolaldia amaitu arte ikasle guztiak eskolatuta edukitzeko duten betebeharrari buruzko atal hau.
4. 6.2 artikulua: kendu egiten da ikastetxeko jarraitutasunari buruzko atal hau.
5. Ikastetxeko jarraitutasunaren bermeari buruzko 6 bis paragrafoa gehitzen da, 2.6 eta 6.2 paragrafoak jasotzen dituen, eta ikasgela bakoitzeko ikasle kopuruaren gutxieneko eta gehieneko mugak betetzeko irizpidea gehitzen da. Itunduen taldean, aurrez emandako irakaskuntzak baino ez dira sartuko.
6. II. kapituluaren titulua, 15. artikulua 9. artikulua eta b) idatz-zatia: "Eragin-eremuak", "Eragin-eremua" eta "eremu mugakideak" terminoen ordez, "Eragin-eremuak", "Eragin-eremua" eta "eremu mugakideak" terminoak jarriko dira, hurrenez hurren, eta "zona" terminoaren ordez "eragin-eremuak" edo mugakideak "terminoak jarriko dira.
7. 9.1 artikulua: tokiko korporazioei entzuteko beharra gehitzen da, eragin-eremuak mugatzeko. (LOMLOE, 86.1 art.)
8. 15. artikulua: onarpen prozesuaren-bermeen batzordeetan sartzen dira ikasleak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak izan ezik, eta horien osieran emakumeen eta gizonen berrezartze orekatuaren printzipioa sustatu beharko dela ezartzen da. (LOMLOEren 86.2 artikulua)
9. 16.1 artikulua: ikastetxeetako iragarki-taulan jada argitaratuko ez diren behin-behineko izapideak argitaratzeko prozedura berridatzi da, eta bide elektronikoz edo aurrez aurre sartzeko modua arautu da.
10. 17. artikulua: behin betiko zerrendei dagokienez: zerrendetarako sarbidea arautzen da eta iragarki-taulan argitaratzeko betebeharra kentzen da.

11. 17 bis artikulua berria, prozeduran parte hartzen duten pertsonak baremoan lortutako puntuazioaren banakapena eta onarpen-lehentasunak arautzen dituena. Babes bereziko datu pertsonalak biltzen dituzten baremo-irizpideak multzokatzen dira.
12. 20.1 artikulua: hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak eskolatzekeo plazen erreserbari dagokionez, honako hauek zehazten dira: heldze-atzerapenagatik, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmenduengatik, arreta- edo ikaskuntza-nahasmenduengatik, ikasteko hizkuntza larriki ez eza-gutzeagatik, gizarte- eta hezkuntza-urrakortasuneko egoeran egoteagatik, adimen-gaitasun handiengatik, hezkuntza-sisteman berandu sartutako ha-beragatik edo hezkuntza-baldintza pertsonalengatik. (LOMLOE 87.2)
13. 21.1 artikulua: hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 73. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari buruzkoa. (LOMLOE)
14. 23.1. artikulua: ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzeari buruzkoa; familiako edozein kideren gerora sortutako desgaitasuna kontuan hartzeko kasuen artean dago. (LOMLOE 84.7)
15. 25.2 artikuluan, onartzeko irizpideen zerrenda kendu da, eta, horren ordez, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren II. tituluko III. kapituluan ezarritako irizpideak eta arauak aipatu dira. (LOMLOE, 84.2 art.)
16. 25.3 artikulua Ikaslearen bi gurasoetako edozein legez bikotekidetzat duen pertsona ikaslearen aitatzat edo amatzat hartzeari buruzkoa, bai eta ikaslearekin pertsona horren seme-alabak bizi direnean ikaslearen anai-arrebatzat hartzeari buruzkoa ere. Lehen, zaintza zeukana bakarrik hartzen zen kontuan.
17. 25.3. artikulua.- Berdinketak hausteko irizpideen zerrendaren ordez, baremoan ezarritako ordena aplikatuko da.
18. Xedapen iragankor berria: 22/23 ikasturterako eskaera egiteko prozedura, adin zuzenduaren arabera matrikulatu ahal izateko muturreko goiztiartasuna edo goiztiartasun handia duten haurrentzat.
19. Eranskin berri batean puntuazio batzuk aldatu dira, inork % 30 gainditu ez dezan: bizilekutik gertu egotea izan ezik. Irizpide berriak sartu dira LOMLOEren 84.2 artikulua: erditze anizkoitzetik jaiotako ikasleak, guraso bakarreko familiakoak eta genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima direnak, bai eta Batxilergorako espediente akademikoa ere. (85.1 LOMLOE).

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

A.- Kontsiderazio orokorrak

Kontseiluak dekretu-proiektu hori aldatzen duen urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuaren berri eman zuen 17/11 Irizpenean.

Kontseiluaren ustez, dekretu-proiektu hau berandu iritsi da, 3/2020 Lege Organikoa argitaratu eta urtebetera, eta urtarrilaren 5eko EHAAn jada argitaratu denean, zeinaren bidez eskaerak aurkezteko egutegiari eta onarpen-epeti buruzko abenduaren 14ko Agindua eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak onartzeko jarraibideak onartu dira. Horrek eragin du agindu horretan zenbait alderdi sartzea, gure ustez legeak behartuta, indarrean dagoen dekretuan jasotzen ez direnak, eta horrek zalantzak sortzen ditu aginduaren diseinuan eta aplikazioan jarraitutako irizpidei dagokienez.

Proiektu honek Legearen aldaketak eskatzen dituen aldaketetako batzuk jorratzen ditu, eta beste batzuk legearen funtzionamendua hobetzeko, esperientziaren eta sortutako behar berrien ondorioz, baina gure ustez, badira garatu gabe geratu diren beste alderdi batzuk, hala nola Lege organikoaren 87.1 artikulua honako hau dioenean: *"Guztiontzako hezkuntza-kalitatea, gizartearen kohezioa eta aukera-berdintasuna bermatzeko, administrazioek hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatuko dute, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte arrazoi sozio-ekonomikoengatik edo bestelakoengatik ikasleak bereiztea saihesteko"*. Horretarako, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten eta ikastetxe publiko eta pribatu itundu bakoitzean eskolatu behar diren ikasleen proportzio orekatua ezarriko dute, eta ikastetxei laguntza hori eskaintzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak bermatuko dizkiete. Era berean, ikastetxe batean ezaugarri horiek dituzten ikasleen proportzio handia biltzen denean hartu beharreko neurriak ezarriko dituzte. Neurri horiek ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea baldintza berdinetan bermatzera bideratuko dira.

Gure ustez, eskola-segregazioa, hezkuntza-munduko hainbat sektorek euskal hezkuntza-sistemaren arazo nagusizat jotzen dutena, lehenbailehen landu beharreko gaia da, baina ezin da soilik onarpen-dekretu batera mugatu, aplikazio mugatukoa, baizik eta Hezkuntza Hitzarmenaren markoan jorratu behar da, eta, ondoren, etorkizuneko Hezkuntza Legean eta haren garapenean, plangintza bezalako alderdietan.

B) Artikuluei buruzko oharra

Batzorde Iraunkorrak ez die eragozpenik jartzen proposatutako aldaketa gehienei, baina zenbait aldaketa proposatu nahi ditu artikulua hauean:

- **5. atala: 6 bis artikulua berria**, 2. paragrafoa: 2.- *Derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetan eskolatzeko bermea ikastetxe horrek ematen dituen hezkuntza-administrazioak ezarritako onarpen-prozedurarekin bat etorritik onartutako ikastetxeko ikasleei dagokie, Batxilergoko Arteen modalitaterako, hizkuntza-, arte- eta kirol-ikasketetarako izan ezik. Itunpeko ikastetxeen*

kasuan, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetan eskolatzeko berme horrek aurrez itundutako irakaskuntzetako unitateak gehitzea baino ez du ekarriko.

3.- *Ikastetxean jarraitutasuna bermatzeko eskubidea duten ikasleen kopuruak eta hurrengo kapituluari aipatzen den ikastetxea atxikitzeagatik lehentasunak gela bakoitzeko gutxieneko ikasle kopurua betetzea eragozten badute, haien artean ikastetxean plaza lor dezaketena hautatzeko, dekretu honetan ikasleak onartzeko ezarritako irizpideak aplikatuko dira. Plazarik lortzen ez duten ikasleak beste ikastetxe batzuetan eskolatu beharko dira.*

Artikulu hau irakurtzeak, bereziki bigarren eta hirugarren paragrafoetan, interpretazio desberdinak ekarri ditu kontrako zentzuetan, bai mugarik gabeko unitateak zabalduko direla interpretatuz, bai ikasleari bere ikastetxean jarraitzea eragotziko zaiola interpretatuz. Hori dela eta, idazketa argitzea proposatzen dugu, neurri horren norainokoa uler dadin. Kontuan izan behar da gai sentikorra dela, plangintzan eta itunean eragina duena, eta, beraz, arreta handiagoz aztertu behar dela.

- **8. atala:** 15: onarpen prozesua eskolatzeko-bermeen batzordeen osaera sailburuaren agindu bidez arautzen bada ere, komeniko litzateke adieraztea batzordea osatzen duten sektoreen ordezkaritzan ikasleen ordezkaritzari erreparatu beharko litzaiokeela.
- **10. atala:** 17: eskatzaileaz gain, berme-batzordeetako kideek sarbidea baldintza berberetan izatea eskatzen dugu, barematu behar izan den kasuetan.
- **12. atala:** 20. artikuluari dagokionez: 17/11 Irizpenean, Kontseiluak zalantzak adierazi zituen 20. artikuluko horri buruz; izan ere, artikulu horrek, lehen aldiz, hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak zituzten ikasleak eskolatzeko plazen erreserba ezartzen zuen.

17/11 Irizpenean, aipatzen ari ziren ikasleak zehaztea proposatu zuen Kontseiluak. Dekretu-proiektu honetan, eskaera hori kontuan hartu da, eta aipatzen diren premia espezifikoak sartu dira: *heltze-atzerapenagatik, hizkuntzaren garapenaren eta komunikazioaren nahasmenduengatik, arreta- edo ikaskuntza-nahasmenduengatik, ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun larriagatik, gizarte- eta hezkuntza-arloko urrakortasun-egoeran egoteagatik, adimengaitasun handiengatik, hezkuntza-sisteman berandu sartzeagatik edo baldintza pertsonalengatik edo eskola-historiagatik sortutakoak.*

Artikuluaren 2. paragrafoan zehazten denez, ikasle horiek modu orekatuan banatuko dira funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztien artean, hezkuntza-sisteman txertatzen laguntzeko baldintzetan, **baina ez da ezartzen ez prozedura, ez ikasle horiek zein baldintzatan parte hartuko duten administrazio-prozesuan.** Plazen erreserbari dagokionez, uste dugu oinarritzko irizpide batzuk ezarri beharko liratekeela ikastetxe publiko zein pribatu itundu bakoitzeko plazen erreserba-ehunekoa zehazteko, bai eta erreserbatutako plazak arautzeko eta esleitzeko irizpideak zehazteko ere.

Kontseiluak, Hezkuntza Hitzarmenari buruz onartu berri duen txostenean, honako hau adierazi du: *Funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan ikasleak modu orekatuan eskolatzeko ahalbidetako duten neurriekin egin behar zaio aurre ikastetxearen hautaketari, gizarte-kohesioa*

hobetzeko eta ekitatea areagotzeko, kontuan hartuta familiek beren seme-alabentzako ikastetxea aukeratzeko indarrean dagoen eskubidea eta hezkuntza-agintariek hezkuntza/gizarte ekitatiboa eta inklusiboa lortzeko duten betebeharra.

Kontseiluak badaki zaila dela bi printzipio horiek bateratzea, eta helburuaren arabera daude. Bere ustez, beharrezkoa da artikulua honen irismena argitzea, hau da, ikasle horiek eskolatzeko prozedura argitzea, kontuan hartuta, gainera, zaila dela hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak antzematea Haur Hezkuntzan dauden ikasleei.

- **Lehen Xedapen Gehigarria:** dekretu-proiektu honetan xedapen hori aldatzen ez bada ere, Haur Hezkuntzako lehen zikloan, itunpeko ikastetxe pribatuetan, onartzeko prozesurako bertan ezartzen diren baldintzak zalantzak sortzen ditu, itundu gabeko zikloa baita, hainbat ikastetxe eta kasuistika mota dituen. Hori dela eta, proposatzen dugu argitzea, haur guztiek aukera berdintasuna bermatzeko irakaskuntzarako sarbidean.

Akatsak:

Hamabigarren atala: 20.1 artikulua: errepikatuta dago esaldi hau: «Ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun larria».

Baremoa: gaizki zenbakituta dago 15.2 atala, 14.2 izan beharko luke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 20an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA